

## Mondragon Unibertsitatea eta Frantziako Enbaxadaren arteko kolaborazio hitzarmena

2008/01/11

Arrasaten 2008ko urtarrilaren 3an, unibertsitateen arteko nazioarteko lankidetzaren sustatzeko eta hizkuntzen ezagutzaren bitartez ikasleen mugikortasuna bultzatzeko hitzarmena sinatu dute Mondragon Unibertsitateak eta Espainiako Frantziako enbaxadak. Hitzarmena Iosu Zabala unibertsitateko Errektorea eta Júrime Ferrer Espainiako Frantziar enbaxadaren unibertsitateen arteko lankidetzarako agregatuak izenpetu dute.

Hitzarmena dela medio 2007/2008 ikasturtetik aurrera unibertsitate-curriculumeko zati bat frantsesez emango den heziketa-programa bat eskainiko du unibertsitateak. Gainera, heziketaren alorrean, Mondragon Unibertsitateko irakasleek prestakuntza-ikastaroak egingo dituzte, eta udako ikastaroetan eta berariazko lan-mintegietan hartuko dute parte, bai Frantzian, bai Euskal Herrian. Horretaz gain, ikasle- eta irakasle-trukea sustatuko da, unibertsitateen arteko lankidetzaren eta lankidetzaren esparru egonkorra bultzatzeko asmoz.

